

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO  
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIA

HERRITARREKIKO ETA  
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

**KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA**

LANDA GARAPENA, INGURUMENA  
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

## Nafarroako Artxiboak José Láinez eta Concha Martínezen dantzaren funts dokumentala jaso du

*Funtsa Nafarroako Musikaren eta Arte Eszenikoen Artxiboan sartu da*

Ostirala, 2018.eko maiatzak 11

Nafarroako Errege Artxibo Nagusiak dohaintzan jaso du José Láinez eta Concha Martínez dantzari eta koreografoen artxiboa, horien ibilbide profesionalean bildutako dokumentaziorik garrantzitsuena duena. Funts dokumental berri hau, Nafarroako Gobernuko Kultura, Kirol eta Gazteria Departamentuak bultzaturiko Nafarroako Musikaren eta Arte Eszenikoen Artxiboan sartu da, betiere Nafarroako Errege Artxibo Nagusian bildutako musika, dantza eta musikari buruzko funts dokumentalak kontserbatu, teknikoki tratatu, zabaldu eta horien garrantzia aldarrikatzeko asmoz.

Kultura, Kirol eta Gazteriako kontseilari Ana Herrerak aurkeztu du dohaintza, José Láinez eta Concha Martínez ondoan zituela. Artxiboaren izenean, "Sorkuntza proiektuak dokumentatuz" prestakuntza proiektuaren koordinatzaile Bertha Bermúdezek parte hartu du.

### Sorkuntza lana

José Láinezek eta Concha Martínezek dohaintzan emandako materiala, dantza munduan egindako jarduera trinkoaren emaitza, beraien proposamen artistikoen sormenaren esparruan sortutako dokumentazioak osatzen du. Berariaz nabarmendu behar dira beraiek sortutako Anexa eta Yauzkari konpainiei buruzko dokumentuak, izan ere, Yauzkari taldea izan zen José Láinez eta Concha Martínezi giza-mugimenduaren muga espresiboak esploratzeko aukera eman zien Espainiako dantza garaikideko lehendabiziko taldea. Dokumentazioan, koreografie buruzko idazkiak aurki daitezke, baita zirriborroak, ikuskizunen programak, emandako tailerrei buruzko informazioa, prentsako albisteak eta argazkiak ere. Horiekin batera, muntaien eta entseguen xehetasunak biltzen dituzten koadernoak eta koreografien zirriborroak bildu dira, eta aparteko garrantzia dute beraien ikuskizun ezagunenei buruz landutako ikusentzunezko dokumentuek.

José Láinez eta Concha Martínezen dokumentazioa da Nafarroako Errege Artxibo Nagusian bildutako dantzaren arloko lehendabiziko artxiboa, funts dokumental berria osatuz. Nafarroako Ondare Dokumentala zaintzen laguntzea da dohaintzaren helburua, ondare horren inguruko zabalkundea eta ikerketa bultzatzeaz gain. Hartara, funtsaren tratamendu artxibistikoa sustatuko da herritar guztien eskura jartzeko asmoz. Egun, Nafarroako Errege Artxibo Nagusiko teknikariek horretan lanean dihardute Nafarroako Arte Eszenikoen Artxiboa deritzon proiektuaren barnean.

## **José Láinez eta Concha Martínez**

José Láinez Díez (Donostia, 1941eko abenduaren 12a) eta Concha Martínez Nicolás (Donostia, 1943ko abenduaren 9a) izan ziren dantza garaikidea Espainian sartu zutenak. Gorputzaren eta espazioaren arteko harreman esperimental eta probokatzailan oinarritutako ikuspegi berezi baten bitartez, inspirazioaren iturri bihurtu dira dantza garaikideko dantzari eta sortzaileen hainbat belaunaldirentzat, gure Komunitatearen barnean nahiz kanpoan.

20 eta 18 urte zituztela, hurrenez hurren, José Láinezek eta Concha Martínezek Donostiatik Amsterdamera joan eta bost urte egin zituzten Het Nationale Ballet konpainiaren barnean. Donostiara itzulita, 1970ean, dantza garaikideko beraien lehenengo taldea eratu zuten, Anexa izenekoa, proposamen artistiko berria, arau-hauslea, probokatzaila eta abangoardista ezagutzera emanez.

1973an Bartzelonako eszena munduan murgildu ziren, hainbat hilabetez beraien ikuskizunak Capsa Antzokian programatu zituztelarik. Garai hartan, José Láinez eta Concha Martínez Bartzelonako Institut del Teatre zentroko irakasle bihurtu ziren. Gainera, sasoi batez, José Láinez Departament de Dansa Contemporània deritzonaren koordinatzailea ere izan zen.

1979an, Iruñeko Pablo Sarasate Musika Kontserbatorioko dantza ataleko zuzendari izendatu zituzten, eta bertan sortu zuten Yauzkari (1980) dantza garaikideko taldearekin batera, Europa osoa bisitatu eta zenbait sari irabazi zituzten, betiere lan probokatzailak, harrigarriak eta konprometituak taularatuz, ordurarte balet klasikoarekin lotura txikia edo ezdeusaren parekoa zuen musikaz lagunduta.

José Láínezen eta Concha Martínezen azken lanak Iruñean taxutu zituzten Piejuntoapie dantza-taldearekin batera. Beraien azken sorkuntza-lana, Becket 5, Iruñeko Gaiarre Antzokian taularatu zuten 2010ean.

2015ean, Uharte Zentroak, Donostia/San Sebastián 2016ren eta Gipuzkoako Dantzagunearen lankidetzaz, “Dantza ez egiteko koreografiak” izenburuko erakusketa antolatu zuen, José Láinez eta Concha Martínez dantza egiteko eta lan egiteko modua, beraien ondare koreografikoa eta José Láínezek zirriborro, idazki eta marrazkien bitartez dantzari bizia emateko landutako “SOLAS” izeneko azken sorkuntza-lan bitxia bilduz.

2017an, Nafarroako Gobernuak ematen duen Kulturako Vianako Printzea Saria jaso zuten.